

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

2018ko apirilaren 18an akta onesteko bilkuran egindako oharra biltzen ditu.

Ohiko bilkura

Eguna: 2018ko martxoaren 14a, asteazkena.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren hogeia direnean, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Osaeran ez zeudenak: Agustín Hervías Salinas (PP), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Luis Felipe Campos Latre (PP); lan-arrazoiak direla eta ezin duela etorri adierazi du.

Legeak udalerrri honi ematen dizkion hamabi aulkietatik, zinegotzien auki bat hutsik dago, Dolores Ruiz Zuazok (PP) uko egin zionetik; 2016ko abenduaren 21ean gertatu zen hori. Nahiz eta ordutik denbora asko pasatu den, ez da ordezkatu. Legez hamaika zinegotzi egon behar dira, baina, orain, hamar kide daude.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkaria.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde aurretik eta arauzko publikitatearekin. Honako hau da

Aztergaien zerrenda

1. Onestea 2018ko otsailaren 21ean eginiko ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetza-dekretu eta -ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**

4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
 5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
 6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. Kontratazio-sistema zentralizatuekin bat egitea
- Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2018ko urtarrilaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) 2018ko otsailaren 21eko ohiko bilkuraren akta onestea, bidalitako zirriborroa aintzat hartuta.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Alkatetza-dekretu eta -ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetza-dekretu eta -ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoena: 2018ko 36/18tik 53/18ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.

6.1. Kontratazio-sistema zentralizatuarekin bat egitea

Idazkari jaunak, alkateak hala aginduta, kontratazio-sistema zentralizatuarekin bat egiteko proposamenaren berri eman du.

Gamarra jauna (PSE-EE-PSOE): Ez daukat ezer esateko.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Gauza onak eta txarrak ditu, eta agian utzikeria ekar dezake kontratazioak izapidetzean.

Estatuaren Kontratazio Zentralera batzea

Aurrekariak:

1. Aplikagarri dira azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 227tik 230erako artikulak eta hirugarren xedapen gehigarria. Lege horren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantz, 9/2017 Legea.
2. Aplikagarri da bigarren xedapen gehigarriko 2. atala; han adierazten da udalbatza osoari dagozkiola kontratazio-organoaren eskumenak, tokiko erakundeak egindako kontratuetan, baldin eta bere balioak edo iraupenak ez badu gainditzen aurrekontuaren ohiko baliabideen % 10 edo sei milioi euro, urte askotako kontratuak barne, lau urte baino gehiagoko iraupena badute.
3. Tokiko erakundeei legezko aukera ematen zaie estatuko kontratazio-sistema zentralizatuarekin, autonomia erkidegoen kontratazio-zentralekin eta beste tokiko erakunde batzuenekin bat egiteko, baita tokiko erakundeen elkarteen kontratazio-zentralekin ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarriarekin bat egiten badute.

4. Alkate jaunak egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Eskatzea Oyón-Oiongo Udalak bat egin dezala, generikoki, Estatuaren Kontratazio Zentralarekin, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 227tik 230erako artikuluen eta hirugarren xedapen gehigarriaren arabera. Lege horren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Berariaz adieraztea Estatuaren Kontratazio Zentralaren funtzionamenduaren erregimen orokorrean sartu nahi duela.
- 2) Bat egiteak ez dakar, ezinbestean, horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazioa estatuko kontratazio-sistema zentralizatuaren bidez egitea.
- 3) Kontratazioaren Arrazionalizazio eta Zentralizazio Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.
- 4) Alkate-udalburu Eduardo Terroba Cabezóni ahalmena ematea behar beste agiri sinatzeko.

Aldeko botoak: 4 (lau): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 3 (hiru): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Arabako Foru Kontratazio Zentralera batzea

Aurrekariak:

1. Aplikagarri dira azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 227tik 230erako artikulak eta hirugarren xedapen gehigarria. Lege horren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen

transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean, 9/2017 Legea.

2. Aplikagarri da bigarren xedapen gehigarriko 2. atala; han adierazten da udalbatza osoari dagozkiola kontratazio-organoaren eskumenak, tokiko erakundeak egindako kontratuetan, baldin eta bere balioak edo iraupenak ez badu gainditzen aurrekontuaren ohiko baliabideen % 10 edo sei milioi euro, urte askotako kontratuak barne, lau urte baino gehiagoko iraupena badute.
3. Tokiko erakundeei legezko aukera ematen zaie estatuko kontratazio-sistema zentralizatuarekin, autonomia erkidegoen kontratazio-zentralekin eta beste tokiko erakunde batzuenekin bat egiteko, baita tokiko erakundeen elkarleen kontratazio-zentralekin ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarriarekin bat egiten badute.
4. Urtarrilaren 14ko 1/2015 Foru Araua, Arabako Foru Kontratazio Zentralaren osaera eta funtzionamendua arautzen duena (ALHAO, 2015/01/28koa, 12. zk.)
5. 12/2014 Foru Dekretua, Ahaldunen Kontseiluarena, Arabako Foru Kontratazio Zentralaren osaera eta funtzionamendua arautzen duena.
6. Erosketa zentralizatuko sistemara batzeko hitzarmen-eredua.
7. Alkate jaunak egindako proposamena. Hau erabaki da:
 - 1) Eskatzea Oyón-Oiongo Udalak bat egin dezala, generikoki, Arabako Foru Kontratazio Zentralarekin, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 228.3 artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera. Lege horren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Berariaz adieraztea Arabako Foru Kontratazio Zentralaren funtzionamenduaren erregimen orokorrean sartu nahi duela.

- 2) Bat egiteak ez dakar, ezinbestean, horniduretan, obretan eta zerbitzuetan foru kontratazio-sistema zentralizatuaren bidez egitea.
- 3) Baimentzea 6. aurrekarian aipatutako bat egiteko hitzarmena, dagokion moldaketekin.
- 4) Foru-administrazioaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoari jakinaraztea.
- 5) Alkate-udalburu Eduardo Terroba Cabezóni ahalmena ematea behar beste agiri sinatzeko, eta bereziki Arabako Foru Kontratazio Zentralaren Funtzionamendu Arauaren 3.3 artikulua aipatutako parte hartzeko tresna informatikoaren erabiltzaileak izendatzeko.

Aldeko botoak: 4 (lau): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 3 (hiru): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Otsailaren 28ko aldizkarian argitaratu zen berdeguneak mantentzeko zerbitzuaren kontratazioari buruz. EH Bildu Oion taldeak gaia aztertu du, eta aukera hobea dauka: Udalak parkeak eta lorategiak bere langileekin kudeatzea. Udalak kontratatutako bi langile merkeagoa aterako lirateke; kostua 65.000 euro ingurukoa izan liteke.

Alkate jn.: Gobernu-talde honek, eta bereziki alkate honek, gaia aztertu dute; INDESArekin hitz egin dugu, partaide garen enpresa publikoarekin, eta egiten ziguten eskaintza zerbitzuagatik ordaintzen zena baino handiagoa zen. Ez dut Bilduren inolako azterketarik ikusten:

ahaztu egin al zaizue makineriaren kostua, laneko arropa, produktuak eta subrogatu beharreko langileen kontua?

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Urte askoan 120.000 euro inguru ordaindu dira nahierara kontratatutako zerbitzuengatik. Ez dut ulertzen langile batzuk subrogatu behar izatea ez badago kontraturik haien enpresarekin...

Alkate jn.: Hau ez dator beroaldi batetik. Urtebete baino gehiago daramagu gai hau aztertzen. Otsaileko batzordean jakinarazi genuen moduan. INDESARI proposatu genionean eta subrogatu beharreko langileez hitz egin genienean, ez zuten esan ez zegoenik geure gain hartzeko beharra, eta egin ziguten eskaintza 120.000 eurokoa zen; gainera, kontuan hartu behar da INDESAk BEZik gabe fakturatzen duela. Gaia aztertuta dago: INDESAREN proposamen ekonomiko bat dago, berdeguneen inbentario bat...

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Hala ere, kudeaketa langile propioekin planteatzeko aukera falta izan zaizue. Bigarren urtea da enplegua sustatzeko eta lorezaintzako prestakuntzarako programak egiten direla.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Erregutzen dut argi gera dadila jaien egitarauan barraskiloak modu altruistan egiten direla, hau da, barraskiloak prestatzen dituztenek ez dutela kobratzen...

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2018ko apirilaren 5ean.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE: